



**14/2019 TXOSTENA, EKAINAREN 28KOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE
IRAUNKORRARENA.**

**GAIA: AGINDU-PROIEKTUA, OGASUN ETA EKONOMIAKO ETA
GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO
SAILBURUENA, ZEINAREN BIDEZ IZAERA
IRAUNKORRAREKIN EZARTZEN BAITA HERRI
ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA (IVAP)
ERAKUNDE AUTONOMOAREN KONTRATAZIO-MAHAIAREN
OSAERA.**

I.- AURREKARIAK.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak txosten-eskaera bat egin zuen 2019ko ekainaren 3an Ogasun eta Ekonomiako eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuen agindu-proiektuari buruz; izan ere, agindu horretan, izaera iraunkorrarekin ezartzen zen «*Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)*» erakunde autonomo administratiboaren kontratazio-mahaiaren osaera.

Eskaera Ondare eta Kontratazioko zuzendariari egin zitzaion, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen presidentea baita.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG_ORD_1527/19_43), honako agiri hauek agertzen dira:

- *Agindua*, Ogasun eta Ekonomiako eta Gobernantza publiko eta Autogobernuko sailburuena, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio «*Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)*» erakunde autonomo administratiboko kontratazio-



mahaiaren osaera izaera iraunkorrarekin ezartzen duen agindu-proiektua egiteko prozedurari.

- Agindua, Ogasun eta Ekonomiako eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuena, agindu-proiektua alde zuzenetik onartzekoa (eranskin gisa dago atxikita).
- Agindu-proiektuaren memoria.
- Agindu-proiektuari buruzko memoria ekonomikoa.
- <<Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)>> erakunde autonomo administratiboaren Aholkularitza Juridikoaren txostena.

II.- ESKUMENA.

Txosten honi buruz nahitaez informatu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a).2 artikuluan xedatutakoaren arabera; izan ere, behin betiko izendatutako kontratazio-mahaia edo kontratu anitzetarako eginkizunetako mahaia eratzeko agindu-proposamen bat da.

III.- KONTRATAZIO-MAHAIEIEN ARAUBIDE JURIDIKOA.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean, SPKL) –horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora– bere 326. artikuluan kontratazio-organoari laguntza emateko kide anitzeko organo gisa arautzen ditu kontratazio-mahaiak. Aipatu legearen azken xedapenetako lehenarekin bat etorrita, 326. artikuluko hori ez da oinarritzeko legeria.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. eta 9. artikuluek kontratazio-mahaien erregulazio berri eta oso bat xedatzen dute. Lehenak kide anitzeko organo horien osaera arautzen du, bai eta kideen izendapena ere; bigarrenak, berriz, organoaren funtzioen irismena zehazten du.

8. artikuluko oro har xedatzen duenez, prozedura irekietan, mugatuetan eta prozedura negoziatu publikitadedunetan kontratazio-organoek kontratazio-mahai



baten laguntza izango dute, eta mahai horren eskumena izango da eskaintzen balorazioa egitea; halaber, kontratazio-organoari egokituko zaio kontratazio-mahaiko kideak izendatzea, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria izan ezik, hura Bulegoaren titularrak aukeratuko baitu.

Artikulu beraren 2. apartatuan, kontratazio-organoari laguntza emateko organoen osaera-arauak finkatzen dira, eta ezartzen da presidente batek, idazkari batek eta gutxienez hiru kidek osatuko dituztela kontratazio-mahaiak. Eta, horrez gain, ezartzen da kideen artean honako hauek egon beharko dutela nahitaez: kontratazio-organoari aholkularitza juridikoa emateko betebeharra duen kide bat eta aholkularitza teknikoa emateko betebeharra duen beste bat, eta kontu-hartzaile bat edo kontratazio-organoaren ekonomia eta aurrekontuak kontrolatzeko zeregina esleituta duen pertsona bat. Kontratua ondasun eta zerbitzu informatikoei eta telematikoei buruzkoa baldin bada, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzako ordezkari bat ere izango da kontratazio-mahaian.

Kontratazio-organoak eskatuz gero, aipatutako kideez gain, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari bat ere izango da kontratazio-mahaian.

Kontratazio-mahaiko kideak izendatzeari dagokionez, aipatutako 8. artikuluko 3. apartatuaren arabera, behin betiko izenda daitezke, edo berariaz ere bai, justu kontratu bakoitza adjudikatzeko. Era berean, zehazten denez, Kontratazio-mahaiko kideak behin betiko izendatzen badira edo mahaiari kontratu anitzetarako eginkizunak esleitzen bazaizkio, kontratazioaren alorrean eskumena duen sailaren titularraren eta kasuan kasuko sailaren titularraren edo erakundea atxikita dagoen sailaren titularraren baterako agindu bidez eratuko da kontratazio-mahaia, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Halaber, beste baldintza bat gehitzen du: nola osatu den eta kideak nor diren adieraziko da kontratuaren administrazio-klausula zehatzen pleguan, eta kasuan kasuko kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, kontratuak egiteko gaitasuna duela egiaztatzeko dokumentazioa kalifikatzeko bilera egin baino hamar egun lehenago gutxienez eta kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen dituela kalifikatu baino hamar egun baino lehen.

IV.- KONTRATAZIO-MAHAIK ERATZEA.



Eusko Jaurlaritzaren sailen berregituraketak, zeina Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren bidez egin baita, eraketa berri bat eman dio sail bakoitzak esleituta duen jardun-eremuari. Gobernantza publiko eta Autogobernu Sailari dagozkion funtzioak eta jardun-eremuak, zehazki, dekretu horren 6. artikuluan adierazten dira, eta sail horri atxikitzen zaio «*Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)*» erakunde autonomo administratiboa.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta funtzioak arautzen dituen urriaren 16ko 200/2012 Dekretuaren 6. 2.f) artikulua araberan, erakunde horretako zuzendariari dagokio kontratazio-organo gisa jardutea erakunde autonomoari esleitutako funtzioak gauzatzeko eta esparruetan jarduteko behar dituen kontratazio-espedienteetan, baldin eta ordenamendu juridikoak ez badie beste organo batzuei ematen aipatu eskumena.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) jardun-arloak kontuan hartuta, egoki iritzi zaio aipatu erakunde autonomo administratiboko kontratazio-mahaiaren osaera iraunkorra arautzeari.

V.- AGINDU-PROIEKTUA.

Agindu-proiektuaren bitartez, <<*Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)*>> erakunde autonomo administratiboko kontratazio-mahaiaren osaera iraunkorra ezarri nahi da, eta hartarakoxe eskatu da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena.

Agindu-proiektuak arau-lerruna eta organo eskudunak errespetatzen ditu, kontratazio-mahaiko kideak behin betiko edo mahaiari kontratu anitzetarako eginkizunekin izendatzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikulua eskatzen duenaren arabera.



Aginduaren izenburuan <<IZAERA IRAUNKORRAREKIN>> esamoldea <<OSAERA>> hitzaren ondotik agertzea proposatzen da.

Gaztelaniazko testuan, errepikapen bat zuzendu behar da: <<[...], en el en el [...]>>. Azalpen zatiaren hirugarren lerrokadan dago.

Agindu-proiektuaren 1. artikulua lehenera erretiratu egin da, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea erakunde autonomoko kontratazio-organoak, adjudikazio-prozedura irekietan, mugatuetan eta prozedura negoziatu publikitate duntan, kontratazio-mahai baten laguntza izango du. Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikuluko eginkizunak beteko ditu horrek, eta honako kide hauek izango ditu:[...]>>. Idazketa hori bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. artikuluan xedatzen denarekin.

Bestalde, SPKLak 326. artikuluan arautzen ditu kontratazio-mahaiak, eta 1. apartatutan honakoa zehazten du: «*Kontratatzeko eskumena kontratazio-batzorde batena denean izan ezik, administrazio publikoen kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute prozedura irekian, prozedura ireki sinplifikatuan, prozedura murriztuetan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatuan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduraren kasuan.. Lizitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez dagoen prozedura negoziatuetan, kontratazio-mahaia eratu edo ez aukeran izango du kontratazio-organoak, salbu eta 168. artikulua b) letraren 1. puntuan aurreikusitako urgentzia larrian oinarritzen denean, orduan nahitaezkoa izango baita mahaia eratzea. 159.6 artikuluan aipatzen diren prozeduretan ere, aukerakoa izango da mahaia eratzea».*

Aipatu den eran, SPKLaren azken xedapenetako lehenarekin bat etorruta, 326. artikulua hori ez da oinarritzeko legeria.

Kontuan hartu behar da, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren azken xedapenetako hirugarrenaren arabera, aipatu dekretua 2016ko urriaren 1ean jarri zela indarrean, eta azken xedapenetako hamaseigarrenaren arabera, SPKLa 2018ko martxoaren



9an. Horrenbestez, dekretuak ezin izan zuen aurreikuspenik jaso, ez adjudikazio-prozedura ireki sinplifikatu berriei buruz (SPKLaren 159. artikuluan arautuak), ez berrikuntzarako elkartzeari buruz (SPKLaren 177. artikulutik 182.era artean arautua, biak barne).

Agindu-proiektuaren 1. artikulua lehen lerrokadan bi adjudikazio-prozedurak aipatzea proposatzen da, salbuespen hau ezarrita: ez da kontratazio-mahairik eratuko 80.000 eurotik beherako balio zenbatetsiko obra-kontratuak eta 35.000 eurotik beherako balio zenbatetsiko zerbitzu- eta hornidura-kontratuak adjudikatzeko adjudikazio-prozedura ireki sinplifikatuetan, ez badira izaera intelektualeko prestazioak eskaintzeko.

Gaztelaniazko testuan, agindu-proiektuaren 1. artikulua a) letran, puntuazioa zuzendu behar da amaierako tartekian, idazketa hau izan dezan: <<[...] *corresponderá al órgano de contratación el nombramiento de la persona suplente*>>.

Gaztelaniazko testuan, agindu-proiektuaren 1.b) artikulua 2. zenbakian gidoi bat behar da «económico» eta «presupuestario» hitzak elkartzeko.

EAEko sektore publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko ereduari buruzko araudian aldaketak ari direnez izapidetzen, eta kontuan hartu behar da alderdi hori, horietara egokitzeko. Horrenbestez, agindu-proiektuaren 1. artikulua b) letraren 3. zenbakia honela idaztea proposatzen da: <<3) *Informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko zuzendaritza eskuduneko ordezkari bat, kontratazio-organoak izendatua, aipatu zuzendaritzaren titularrak proposatuta, IKTren arloko ondasunak, azpiegitura teknologikoak eta zerbitzuak kontratatzen direnean*>>.

Kontuan hartuta uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.2 artikulua hirugarren lerrokada, <<[...] *Kontratazio-organoari lege-aholkularitza emateko baldintzak betetzen dituen pertsona izendatzen bada idazkari izateko, organo horrek erabaki ahal izango du pertsona berberak gauzatzea idazkaritza-eginkizunak eta aholkularitza-eginkizuna* [...]>>, agindu-proiektuaren 1.b) artikulua 4. zenbakiaren idazketan, HAEEn zerbitzu orokorren kontratazio-teknikariak hitz egitean, honakoa gehitu behar da: <<[...], *Zuzenbideko graduduna edo lizentziaduna*, [...]>>. Gaztelaniazko testuan, puntuazioa zuzendu behar da



amaierako tartekian, idazketa hau izan dezan: <<[...] *corresponderá al órgano de contratación el nombramiento de la persona suplente*>>.

Gaztelaniazko testuan, agindu-proiektuaren 3. artikulua lehen lerrokadan, «*de*» preposizioa jarri behar da «*perfil*» eta «*contratante*» hitzen artean. Era berean, «*correspondiente*» hitza sobera dago.

Agindu-proiektuaren 3. artikulua horren hirugarren lerrokadaren idazkera Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarritzko Legearen 8. artikulua xedatutakora egokitu beharko da.

Gaztelaniazko testuan, agindu-proiektuaren 4. artikulua azken tartekian, kontratazio-mahaia singularrean aipatu behar da, era honetan: <<*este órgano colegiado*>>. Era berean, «*correspondiente*» hitza sobera dago.

Agindu-proiektuaren azken xedapena era honetan idaztea proposatzen da: «*Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean*».

Horiek horrela, <<*Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)*>> erakunde autonomo administratiboko kontratazio-mahaiaren osaera iraunkorra ezartzea xede duen Ogasun eta Ekonomiako eta Gobernantza publiko eta Autogobernuko sailburuen agindu-proiektuaren **ALDEKO TXOSTENA** eman da, agindu horren edukia txosten honetan jasotako jarraibideetara eta gomendioetara egokitze baldintzapean.